

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

3/2025 Mozioa, urtarrilaren 10ekoa, gure lurraldean auto elektrikoa bultzatzeari buruzkoa

Arabako Batzar Nagusi hauetako Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Batzordeak, 2025eko urtarrilaren 10ean egindako bileran, mozio hau onetsi zuen:

3/2025 Mozioa, urtarrilaren 10ekoa, gure lurraldean auto elektrikoa bultzatzeari buruzkoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari (EEEren bidez), Arabako Foru Aldundiari eta Arabako landa-eremuetako udalei eskatzen diete neurriak har ditzatela Arabako landa-eremuetan ibilgailu elektrikoen kargagailuak instalatzeko, azpiegitura horretarako irispide unibertsala bermatzeko eta mugikortasun jasangarriari eta lurralde-orekari modu eraginkorrean laguntzeko.

2. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari (EEEren bitartez) eta Arabako Foru Aldundiari eskatzen diete, operadore pribatuen kargagailu elektrikoak instalatzea ezinezkoa den kasuetan, erakunde horiek izan daitezela karga-puntu horien operadoreak, eta kargagailuak instalatu, sarearekin konektatu eta mantendu ditzatela, kasu bakoitzerako karga-puntu bakoitzaren arduraduna nor den zehaztuta.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 10a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA